

BASAURIKO UDALA

Behin-betiko onespina ematea 01 Zabalandi merkataritza-arean dagoen Bilbondo Merkataritza Gunearen Xehetasun Azterlana.

Basauriko (Bizkaia) Elizate Prestuko Udalbatzak, 2024.eko ekainaren 27an egindako ohiko bilkuran honako hau erabaki zuen:

LEHENA. CATALINA ISLAND SL enpresak eskatuta, 01 Zabalandi merkataritza-arean dagoen Bilbondo Merkataritza Gunearen Xehetasun Azterlanaren hasierako onespeneren dokumentua jendaurrean jartzeko aldiari aurkeztutako alegazio hauek ezestea.

ZK.	EGILEA	ERREGISTRO- ZK.	Data
1	M ^a Teresa Dañobeitia Landeta	2024002699	2024/03/18
2.2 eta 2.3	Urtzi Saratxaga Lozano	2024004090	2024/04/24

BIGARRENA. Urtzi Saratxaga Lozanok aurkeztutako 2.1 alegazioa partzialki baiestea eta, hura argitaratzeko eta indarrean jartzeko, CATALINA ISLAND SL enpresak aurkeztutako 01 Zabalandi merkataritza-arean dagoen Bilbondo Merkataritza Gunearen Xehetasun Azterlanak EAEko bi hizkuntza ofizialetan egon beharko duela erabakitzea.

HIRUGARRENA. 01 Zabalandi merkataritza-arean dagoen Bilbondo Merkataritza Gunearen Xehetasun Azterlana behin betiko onestea, CATALINA ISLAND SL enpresak aurkeztutako dokumentazioaren arabera.

LAUGARRENA. Aurreko puntuan aipatutako Xehetasun Azterlana Bizkaiko Foru Aldundira bidaltzea, argitaratu baino lehen Hirigintza Plangintzaren Administrazio Erregistroan gorde dezan.

BOSTGARRENA. Behin betiko onespeneren erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bizkaiko lurralde historikoan hedapen handiena duen egunkarian edo egunkarietan eta Basauriko Udalaren egoitza elektronikoan (<https://www.basauri.eus> helbidea) argitaratzea.

SEIGARRENA. Erabaki honen edukiaren berri ematea interesdunei.

Jakinarazten zaizun ebazpenaren aurka, zeina behin betikoa baita administrazio-bidean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango duzu Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko 29/98 Legearen 46. artikuluan araberak. Horrek ez du eragotziko beste edozein aurkaratze-bide erabiltzea, egoki baderitza.

